

ZERGAK ETA GENEROA. ZENBAIT GOGOETA.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA.

KONGRESUA.

TESTUAREN AURKEZLEA:

DOMINGO CARBAJO VASCO

ESTATUKO OGASUNEKO IKUSKATZAILEA

**ZERGADUN HANDIEN ORDEZKARITZA ZENTRALA (DCGC)-
ZERGA-ADMINISTRAZIOAREN ESTATU-AGENTZIA (ZAEA).**

MADRIL. 2008ko maiatzaren 4a.

1. GOGOETA OROKORRAK.

“Tradiziozko loturak, hala nola, familia, talde soziala eta erlijioa, ahultzen ari dira. Baloreetan indibidualizazioarako joera dago, bai eta kulturaren atomizazioarako joera ere, kulturak indibiduoan jartzen baitu arreta, kontsumitzailean, gizarte osoan baino gehiago; horrek gainerakoekiko tolerantziarekin eta begirunearekin lotutako gai berriak sorrarazi ditu. Era berean, solidaritate-modu berriak sortu dira, kultura- eta aisialdi-jarduera berrien bitartez bereziki.”¹ (Guk azpimarratu dugu).

Baliteke gu baieztapen horiekin moralki ados egotea, edo ez, eta eztabaidatu ere egin ditzakegu². Halere, alde batetik, egoera berri baten esparrua zehazten dute, eta Europar Batasunak (aurrerantzean, “EB”) esparru horretan gauzatuko du, hemendik aurrera, bere zeharkako genero-politika (“*gender mainstreaming*”); beste alde batetik, “Lisboako estrategia” lortzeko genero-berdintasuna ezinbestekotzat jotzen duen testuinguru soziala eta ekonomikoa azaltzen dute. Lisboako estrategiak, 2010. urterako, munduko eskualde aurreratuen bihurtu nahi du Europa, jakintzaren ekonomian³ oinarrituko dena, eta politika horizontalak martxan jarriko dituena; politika horizontal horiek politika publiko guztietan izango dute eragina, horien izaera eta helburuak edonolakoak direla ere, hau da, “*mainstreaming*” deritzona. Bestalde, honako errealitate hau ez dago ezbaian jartzetik: familiaren eredu klasikoa krisian dago (bizitza osorako ezkondata dauden gurasoak, bi sexu desberdinetakoak, eta seme-alaba kopuru ertaina/altua; gizona etxetik kanpo lanean, eta emakumea “bere lanak” egiten), eta desberdinak eta anitzak diren eta etengabe aldatzen ari diren egiturak sortu dira horren ordez (gurasobakarrak, izatezko bikoteak, sexu bereko bikoteak, dibortziatuak, etab.); pertsona baten sexua aldatu ere egin daiteke horren bizitzan zehar (transexualak)⁴; eta, dudarik gabe, eremu kulturean, ekonomikoan eta sozialean, indibidualismoak gora egin du; gainera, horrenbeste erabiltzen diren “informazioaren eta komunikazioaren teknologiek” dakartzaten komunikatzeko modu berriek areagotu egiten dute indibidualismo hori.

Hori horrela, zerga-sistemek ingurune sozialetan, ekonomikoetan, teknologikoetan, politikoetan eta abarretan gertatzen diren aldaketak kontuan hartu behar dituztela esaten badugu, agerikoa da, baita ere, zergen egitura, edo oinarritzko parametroak⁵, herritarren eskubideen eta betebeharren (horietan artean baitaude zergak ere) “indibidualizazioa” kontuan hartuz eraiki behar direla. Hori guztia bereziki betetzen da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko

¹ Europako Erkidegoetako Batzordea. Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuarentzat, Kontseiluarentzat, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldearentzat eta Eskualdeetako Lantaldearentzat. Aukerak, sarrera eta solidaritatea: XXI. mendeko Europarentzako ikuspegi sozial berri baterako bidean, KOM (2007) 726 amaiera, Brusela, 2007.11.20, 6. orrialdea.

² Adibidez, erlijioek gizarte modernoetan duten paperaren beste ikuspegi bat aurki daiteke hemen: “*In God’s name. A special report on religion and public life*”, *The Economist*, 2007ko azaroaren 3a.

³ EBko testuetan eta dokumentuetan behin eta berriro errepikatzen dira honako termino hauek: “jakintzaren gizartea”, “adimenak giharra gainditzen duen gizartea” eta “informazioaren gizartea” (informazioa jakintzarako bide den heinean).

⁴ Zentzu horretan, ikus 2007/3 Legea, martxoaren 15koa, pertsonen sexuari buruzko aipamenaren erregistro-zuzenketa arautzen duena (martxoaren 16ko “Estatuko Aldizkari Ofiziala”; aurrerantzean, BOE).

⁵ Oinarritzko parametrotzat har ditzakegu aplikatuak, aldatuak edo kenduak izateko lege bat behar dutenak, “legezkotasunaren lehenetsunaren” printzipioari jarraiki, gure Zerga Antolamenduaren oinarritzko arauaren 8. artikuluan ezartzen dena, hau da, 2003/58 Legean, abenduaren 17koan, Tributuaren Lege Orokorrean (aurrerantzean, “TLO/2003”).

Zergari (aurrerantzean, "PFEZ") dagokionez; zerga honek, bere definizioagatik eta izaeragatik, pertsonaren ahalmen ekonomikoa hartu behar du kontuan, eta pertsona fisikoa da horren zergaduna, harreman kolektibo guztietatik isolatuta, 2006/35 Legearen 8. artikuluari jarraiki.

Zerga-sisteman, joera unibertsal horren eta gizarteen modernizazioaren kontra doa beste politika publiko batzuk edo zerga-printzipio batzuk direla eta, "indibidualizazio" horri kalte egiten dion guztia, hala nola, zerga-ordainketa bateratua edo PFEZeko zerga-zorren etendura ezkontideen artean.

2. GENERO-BERDINTASUNA LEGEZKO BETEBEHAR GISA.

Bestalde, EB zuzenbide-komunitatea denez, eta legezkotasun-printzipioak zerga-eremuan garrantzia duela kontuan hartuta, erlatiboa bederen, gure Finantza Antolamenduak ezin ditu alde batera utzi, ikuspegi juridikotik, "sexu-berdintasuna" ezartzen duten arauak; eta, ondorioz, gure zergen parametroak "berdintasun" horrekin bat datozen edo ez erabakitzeke gogoeta egitera behartuta dago.

Izan ere, Europako esparru juridikoan "genero-berdintasunaren printzipioa" azpimarratzen duten xedapenak daude, eta horiek ez dira borondate onezko deklarazioak edo adierazpen politiko hutsak, arau-baliorik ez dutenak.

Aitzitik, Europako erakundeek politika publiko guztietan genero-berdintasunaren alde egiten duten apustua Erkidegoko Zuzenbidera pasa da, bai eta horren adierazpen guztietara ere, eta, ondorioz, pentsatzekoa denez, Zerga Zuzenbideak ezin du betebeharrak hori ahanzi.

EBrentzat, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna EBko oinarritzeko printzipioa da, eta politika aktiboak eta bereizkeria positiboak jarri behar dira martxan esparru guztietan (zergena barne), emakumezkoen betiko gutxiagotasun-egoera gainditzeko.

Berezikeria hori zeharkakoa izan daiteke, edo, besterik gabe, itxurazkoa, baina itxuraz "genero-joerarik" ez dagoen egitura juridikoetan gauzatu daiteke.

Berdintasun-politika horren garrantzia agerian uzteko, berriz ere, Europako erakundearen ahotsa zuzenean gogoratzea da hoberena:

*"Enpresa-munduan eta lan-merkatuan emakumezkoen eta gizonezkoen artean dagoen berdintasun-eza Europako gizarte osoaren arazo larri bat da; gizonezkoena eta emakumezkoena, enpresena, langileena, gobernuena, solaskide sozialena eta gizarte zibilarrena. EEGLk deritzo iritsi dela berdintasun politikei bultzada berri bat emateko garaia, lan-merkatuan, enpresa-ekimenean eta bizitza sozialaren antolaketan neurri aktiboak ezarriz."*⁶

Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeak (aurrerantzean, "EEGL")⁷, EBko elkarrizketa soziala gehien ordezkatzeko duen erakundeak, duela gutxi egindako

⁶ Europako Gizarte eta Ekonomia Lantaldearen irizpena, honako gai honi buruzkoa: "Enplegarritasuna eta enpresa-espiritua – Gizarte zibilarren, solaskide sozialaren eta eskualdeetako eta tokiko erakundearen papera generoaren ikuspegitik.", "Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala" (aurrerantzean, "EBAO") C seriea, 256, 2007ko urriaren 27koa, 1.1. paragrafoa.

⁷ *Idm.* honako gai honi buruz: "Solaskide sozialaren papera bizitza profesionalaren, familiarraren eta pribatuaren bateragarritasunean", EBAO, C seriea, 256, 2007ko urriaren 27koa.

irizpen batetik atera dira hitz horiek, eta zentzu handia dute. Agerian uzten dute, alde batetik, Europako erakundeek garrantzi juridiko, ekonomiko eta sozial handiko esparru batera eraman dituztela gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasun eraginkorrari buruzko politikak; eta, beste alde batetik, ez dagoela genero-ikuspegirik ez daukan Zuzenbidearen esparrurik edo giza jarduerarik (ez dugu aztertuko “gender” termino ingelesa Espainian ongi itzultzen den edo ez).

Dudarik gabe, genero-berdintasuna zeharkako politika da, “mainstreaming”; politika publiko guztietan eragiten du eta politika publiko guztiek hartu behar dute kontuan. Oinarrizko erronka bat da Europako etorkizunarentzat, klima-aldaketaren aurkako edo garapen iraunkorraren aldeko borroka bezala, garrantzi berdintsua duen adibide bat jartzearen, ikusi *infra*.

Bere lorpenak Antolamenduaren adar guztietan (finantzarioa barne) islatu behar dira. “Genero-berdintasunaren” aurkako edozein xedapen edo arau (PFEZren zerga-ordainketa bateratuarekin gertatzen den bezala, lehenago azaldu dugunez), legearen ikuspegitik, Europako Zuzenbidearen aurkako da. Gainera, dinamismo produktiboaren⁸ eta garapen sozialaren aurkako da, eta hori ere garrantzitsua da; izan ere, eskubideen eta betebeharren “indibidualizazioak” giza baliabide gehiago dakartza lan merkatura, kalitate hobegokoak (lan-indarraren malgutasun handiagoa, esaterako), bai eta dinamismo ekonomiko handiagoa ere. Ergo, Espainiako zerga-sistemako genero-berdintasunaren aurkako itxuraldatzeak desagerraraztea legezko betebeharra da, eta, gainera, gizartea modernizatzen eta dinamizatzen lagunduko du horrek, bai eta lege-sistema bere inguruneetara egokitzen ere; eta, bukatzeko, hazkunde ekonomikoari ere laguntzen dio⁹.

3. GIZONEZKOEN ETA EMAKUMEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNA ZERGA-ZUZENBIDEAN DERRIGORREZ BETE BEHAR DEN ARAU JURIDIKO GISA.

Gorago esan dugun bezala, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna EBko oinarrizko printzipioetako bat da; Itunaren 2. eta 13. artikuluek eta EBko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 21. eta 23. artikuluek bermatzen dute. Gainera, Lisboako Agendako (17. Jarraibidea) oinarrizko helburuetako bat da; ez elementu kuantitatiboek dagokienez soilik (emakumezkoen enplegu-tasa %60ra iristea 2010. urterako, adibidez), baizik eta “zeharkako politika” den heinean, Europako agintaritzak publikoak berdintasun hori lortzeko daukan tresnak politika eta jarduera praktikoa guztietan erabiliz.

EBk berdintasun-politikari ematen dion garrantzia islatu nahi izan du Genero Berdintasunerako Europako Institutua sortuz, 2006/1922/EE Erregelamenduak onartua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarenak, 2006ko abenduaren 20koak, Genero Berdintasunerako Europako Institutua

⁸ *Passim*. Pazos Morán, María. Genero-berdintasunerako politikak ekoizpen-faktore gisa, Azterketa Fiskalerako Institutua, Madril, *mimeo*, 2006.

⁹ “Emakumezkoen enpleguaren hazkundea produktibitatearen hazkundearekin batera joan dadin, neurriak ezarri behar dira emakumeek kalitatezko lanbideak lor ditzaten, eta gaizki ordaindutako lan-poltsak, marjinalak, areagotzea ekiditeko, horietan harrapatuta geratzen baitira emakumezkoak, bai eta beste talde batzuk ere.”, Pazos Morán, María. Genero-berdintasunerako politikak...; *op. cit.*, 2. orrialdea.

sortzen duenak (EBEO L 403, 2006ko abenduaren 30ekoa). Institutuaren helburua da, beste batzuen artean, “...*genero-ikuspegia sartzea politika guztietan...*” (Zioen Azalpeneko 10 kontuan hartuz).

Espainiak, Zuzenbide Estatua (konstituzio espainoleko 1.1. eta 9.1. artikulua; aurrerantzean “KE”) eta EBko estatu kide den heinean, ez du alde batera utzi genero-berdintasuna politika publikoen jarraibide-printzipiotzat - zerga-politika barne- hartzen duen planteamendua, ez eta betebeharrak juridikotzat ere -agintaritza publikoentzat eta herritarrentzat-.

Are gehiago, 2007/3 Lege Organikoaren, martxoaren 22koaren, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasun eraginkorrerakoaren (BOE, 23koa) Zioen Azalpeneko I. Paragrafoko bigarren idatz-zatiak adierazten duen bezala:

“Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna giza eskubideei buruzko nazioarteko testu askotan onartutako printzipio juridiko unibertsala da. Testu horien artean nabarmendu daiteke emakumearen aurkako bereizkeria-modu guztiak desagerrarazteari buruzko Konbentzioa, Nazio Batuen Biltzar Nagusiak 1979an onartua, eta Espainiak berretsia 1983an. Ildo horrekin jarraituz, gogora ekar ditzakegu munduko konferentzia monografikoek ekarritako aurrerapenak, esaterako, 1985ean Nairobin egindakoak, eta 1995ean Beijingen egindakoak.”

Nazioarteko Zuzenbidearen esparru horretan, Europako politikek eta arauak, bai eta Nazioarteko Zuzenbideko edozein xedapenek ere (KEko 93., 94. eta 96.1. artikulua) Espainiako barne-antolamendua behartzen dute, edozein adar espezializatutan: Gizarte Zuzenbidea, Administrazio Zuzenbidea, Zuzenbide Zibila, Merkataritza Zuzenbidea eta, nola ez, Finantza Zuzenbidea.

Beste alde batetik, kontuan izan behar da gure Zerga Antolamenduko oinarritzko arauaren 7.1. artikuluko c) idatz-zatiak, bere ardatzak, 2003/58 Legeak, abenduaren 17koak, Tributuen Lege Orokorrak (aurrerantzean, “TLO/2003”) zerga bakoitzaren berezko legeen¹⁰ gaineratik jartzen dituela EBko arauak. Ondorioz, Espainiako zerga-xedapenen edukia, PFEZetik hasita, Europako araudira egokitu behar da, maila altuagokoa baita; eta araudi horrek politika publiko guztietan, zerga-politikan barne, generoen arteko berdintasun eraginkorra egotea eskatzen du.

Bere aldetik, 2007/3 Lege Organikoak, martxoaren 22koak (horren ezarpenak zentsura juridikoa zehazten du gure herrialdean, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren printzipioaren ezarpen eraginkorrari dagokionez), behin eta berriro adierazten du berdintasun horrek lehentasun juridikoa daukala, eta bereizkeria oro, baita zeharkakoa ere, debekatuta dagoela (6.2. artikulua). Gainera, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko tratua eta aukera-berdintasuna:

¹⁰ “7. artikulua. Zerga-antolamenduaren iturriak.

1. Zergak honakoen agindupean egongo dira:

....

c) Europar Batasunak ezarritako arauak, edota nazioarteko edo nazioz gaindiko beste erakunde batzuek, Konstituzioaren 93. artikuluekin bat etorritik, zerga-arloko eskumenak ematen bazaizkie.

d) Lege hau, zerga bakoitza arautzen duen legea eta zerga-arloko xedapenak dituzten gainerako legeak...”.

“... antolamendu juridikoaren printzipio informatzailea da, eta, ondorioz, arau juridikoak interpretatzerakoan eta aplikatzerakoan kontuan hartuko da.”

4. artikulua enfatikoki adierazten duen bezala.

Bukatzeko, gobernu zentralak dio politika horiek indartu nahi dituela, izaera pedagogikoa duten xedapenen bitartez adibidez. Horren erakusgarri da, Espainiako historian lehen aldiz, emakumezko gehiago egotea gizonezkoak baino, edo "Berdintasun Ministerio" bat sortu izana. Halere, erretorika horrek guztiak lege-aldaketa bat eskatzen du, bai eta pentsaeren, egituren, ekoizpen-moduen eta abarren aldaketa bat ere. Horietan lehenengoa errazagoa da; baina, zoritxarrez, azaroaren 28ko 2006/35 Legean barne hartutako PFEZaren azkeneko erreformaren ostean "zerga-ordainketa bateratuak" existitzen jarraitzeak erakusten du erretorika politikoa gauza bat dela, eta errealitatea, berriz, beste bat, desberdina oso¹¹.

Horregatik guztiagatik, garrantzitsua da ebaluatzea eta jakitea Espainiako zerga-sistemak nola jokatzen duen generoari dagokionez eta ikuspegi guztietatik: juridikotik, sozialetik eta ekonomikotik¹². Bereziki, PFEZ bezalako tasa bati dagokionez, horren ardatz subjektiboa "indibidua" baita ustez, hau da, pertsona fisikoa, lotura pertsonal eta familiarak kontuan izan gabe (bere oinarri zergapegarrian "...egoera pertsonalak eta familiarak" sartzen badira ere, ahalmen ekonomikoa neurtzeko mekanismo gisa)¹³.

Bistakoa denez, "berdintasun-test" honen helburu nagusia PFEZa da; izan ere, zerga hori da Espainian garrantzi sozial (2006ko zerga-aldian, 2007ko aitortopenean, 17 milioi aitortopene baino gehiago; eta aitortopene-aldi honetan, 2008ko aitortopenean, 18.500.000 aitortopene espero dira)¹⁴, ekonomiko (Espainiako eta autonomia erkidegoetako diru-bilketako baliabide handiena da)¹⁵ eta politiko

¹¹ Zentzu horretan, gai horren inguruan egin dugun azkeneko lana ikus daiteke: Carabajo Vasco, Domingo. "Zerga-ordainketa bateratua Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan 2006/35 Legearen ondoren, eta genero-berdintasuna. Zenbait gogoeta", Andaluziako II. Konferentzia Ekonomia eta Aurrekontuei buruz generoaren ikuspegitik, Malaga, 2007ko abenduaren 12a eta 13a.

¹² Berdintasun-politikaren oinarrietako bat da hazkunde zabalagoa, ongizate ekonomiko hobea eta abantaila sozial handiagoak ekartzen dituela, ikus, adibidez: "Solaskide sozialen papera bizitza profesionalaren, familiarren eta pribatuaren bateragarritasunean" EEGLren irizpena, EBAO, C seriea, 256, 2007ko urriaren 27koa.

Zentzu horretan, emakumezkoek lanindarrean parte hartzeak hazkunde ekonomikoa ekartzeari buruz irakur daiteke hemen: "*Women and the world economy. A guide to womenomics*", The Economist, 2006ko apirilaren 15a, 14. 76. eta 77. orrialdeak.

¹³ Ikus 2006/35 Legearen 1. artikulua, azaroaren 28koarena, PFEZaren berrikuntzari buruzkoarena.

¹⁴ PFEZren estatistikak ZAEaren web-orrian argitaratu dira www.agenciatributaria.es, bai eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioarenean ere (aurrerantzean, "EOM") www.meh.es, konkretuki, urtero argitaratzen den "Zerga Administrazioaren Memorian", estatistika-eranskin zabal bat barne hartzen duenean.

Espainiako Sektore Publikoaren Datu Baseak, edo BADESPEK, emandako informazioa ere garrantzitsua da; Azterketa Fiskalerako Institutuak (aurrerantzean, "AFI") argitaratzen du hori: www.ief.es. Maila makroekonomikoan, garrantzitsua da, baita ere, AFIk berak ematen duen PFEZeko aitortopene lagina; duela gutxi eguneratu da hori, 2004 zerga-aldia barne hartuz.

Azkenik, EOMren Zerga Zuzendaritza Nagusiaren (aurrerantzean, "ZZN") argitalpena ere gomendatzen dugu, zehaztasun eta azalpen ugari baititu. PFEZa eta Ondarearen gaineko Zerga 2004n. Ekitaldiko datu estatistikoen azterketa. Arg. EOMren Argitalpen Zerbitzua, Madril, 2007.

¹⁵ 2008rako Estatuko Aurrekontu Orokorren datuen arabera, PFEZak 70.579 milioi €ko diru-sarrerak ekarriko ditu 2008ko ekitaldian; horietatik 43.260 milioi € Estatu Zentralarenak dira. Balio Erantsiaren gaineko Zergak 61.279 milioi € ekarriko ditu; horietatik 38.205 Estatu Zentralarenak dira. Iturria:

handiena duena. Halere, kontuan hartzen ditu, baita ere, zerga-sistemako gainerako tasak, eta bereziki osagarri pertsonal bat dutenak, hala nola, Ondarearen gaineko Zerga eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga.

Eta ezin dugu hasiera batetik onartu Zerga Zuzenbidea "neutrala" izatea gizonezkoen eta emakumezkoen arteko harremanen trataeran; alde batetik, ez dagoelako bera garatzen den errealitate sozialaren aurrean neutral den Zuzenbiderik, eta, bestetik, nazioarteko doktrinak aspalditik dakielako zerga-sistemetan "genero-joerak" daudela¹⁶. Hain zuzen ere, 2003/30 Legea, urriaren 13koa, gobernuaren arau-xedapenetan generoaren eraginaren balorazioa sartzeko neurriei buruzkoa (14ko BOE), zerga-erreforma guztietan "joera" hori hautematen lagunduko digun tresna izan daiteke (koherentziaz eta eraginkortasunez gauzatzen bada bederen; baina hori ez da horrela Espainian, propaganda politikorako baino ez baita erabili).¹⁷

Gauzak horrela, XXI. mendeko zerga-erreforma orotan beharrezkoa da honako galdera hau egitea: gure PFEZen, edo zerga-sistemako beste edozein ordainarazpenetan, ba al dago "genero-joerarik"? Galdera hori garrantzitsua da hainbat arrazoigatik: joera horrek zenbait alderditan duen eraginagatik, (emakumezkoak lan-merkatuan sartzeko dauzkan pizgarrietan¹⁸, adibidez), Berdintasunerako Lege Organikoa betetzeko beharagatik, EBra egokitzeko, eta, azkenik, errealitate sozial eta ekonomiko berriei erantzun ahal izateko.

Are gehiago, galdera horrek interes handiagoa hartzen du PFEZak gure herrialdean erreforma garrantzitsu bat izan berri duela pentsatzen badugu. Hain zuzen ere, honako lege honetan zehaztutakoa: 2006/35 Legea, azaroaren 28koan, PFEZari buruzkoan eta Sozietateen eta Ondarearen gaineko Zergen legeak aldatzen dituenean (29ko BOE) (aurrerantzean, "PFEZL"). Horren arauen azalpena 2007/439 Errege Dekretuan jaso da, martxoaren 30ekoan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duenean, eta Pentsio Planen eta Pentsio Funtsen Erregelamendua aldatzen duenean, 2004/304 Errege Dekretuak onartutakoan, otsailaren 20koak (31ko BOE) (aurrerantzean, PFEZE)¹⁹. Horiek guztiek, aurreko "genero-joerak" mantendu eta indartu dituzte, "berdintasunezko" legedia bete gabe, eta, beste behin ere agerian utziz, PSOE delakoaren gobernuaren itzalpean, "berdintasuna" itxura propagandistikoa eta teorikoa besterik ez dela.

Beste alde batetik, ezin dugu ahaztu "Erreforma" horri beste "erreforma txiki" batzuk egiten ari zaizkiola; horiek eragin handia dute berdintasunean. Adibide garbia da 2007/35 Legea, azaroaren 15koa, PFEZen jaiotzagatiko edo adopzioagatiko kenkariak eta jaiotzagatiko edo adopzioagatiko Gizarte Segurantzaren ordainketa bakarreko zerbitzu ekonomikoa ezartzen dituen

2008rako Estatuko Aurrekontu Orokorren aurkezpena ("Liburu Horia"), Arg. EOMren Argitalpen Zerbitzua, IV.2.1. Koadroa, 175. orria.

¹⁶ G. Stotsky, Janet. "Genero-joerak zerga-sistemetan", Pazos Morán, María (zuz.). Zerga Politika eta generoa, Arg. Azterketa Fiskalerako Institutua, bilduma. Ogasun Publikoaren Azterketak, 2005, 41.etik 62. orrialdera.

¹⁷ Estatu Zentralaren araudian 2003/30 Legea ez betetzeari buruz, honako nota honi egiten diogu erreferentzia: "2003/30 Legea. Estatuko Aurrekontu Orokorretako Legea aplikatzea, eta horren garapenak sorrarazten dituen beharrak", anonimoa, 2006, mimeo.

¹⁸ S. Gustafsson, Siv. "Generoaren eragina Errentaren gaineko Zergetan. Ezkondutako emakumeen lanerako pizgarriak desagerraraztea zerga-ordainketa bateratuagatik", Zerga Politika eta generoa-n; op. cit., 63.etik 80. orrialdera.

¹⁹ *Passim*. Carbajo Vasco, Domingo; Galán Ruiz, Javier. PFEZaren Lege berria. Azterketa praktikoa, Ediciones Experiencia,artzelona, 2007.

(16ko BOE); jendeak “ume-txeke” deitu dio, eta “genero-joera” garbia dauka, emakumezkoaren “emankortasun-demografikoaren” rola indartzen baitu, eta, ondorioz, Berdintasunerako Lege Organikoaren aurkakoa baita, baina oso probetxugarria eztabaida politikorako eta populistarako.

Egia esan, lege horrek ez du eztabaida garrantzitsurik sorrarazi horrek gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunean duen eraginari buruz, ez eta, legearen 2. artikuluari jarraiki, zerbitzuaren onuradun izateko lehentasuna “amak” edukitzeari buruz ere; horrek erakusten du Espainian oraindik lan handia dagoela egiteko zerga-sisteman “genero-joerak” duen eragina modu orokorrean eta normalean aztertu ahal izateko, erretorika guztia alde batera utziz, eta gai hori benetan aztertu eta zerga-sistema “berdintasunera” egokitu ahal izateko.

4. PFEZARI ETA GENERO-BERDINTASUNARI BURUZKO DIGRESIO LABURRA.

Konstituzio Auzitegiaren (aurrerantzean, “KA”) 1989/45 epaiak adierazi zuen seme-alaben eta ezkontideen zerga-ordainketa bateratuaren derrigorrezko sistema gure Karta Magnaren aurkakoa zela. Sistema horrek bilakaera historikoa izan du gure herrialdean: Jaime Carnerren Errentaren gaineko Kontribuzio Nagusiak, 1932koak, errentaren gaineko zerga nagusi bat baimendu zuen, ezkontza konbentzionalari mesede egiten ziona, “ezkongabetasunari errekarua” jarriz. Esan dezakegu, alde batetik, familiaren trataerari buruzko arazo korapilatsua beti azaleratu dela PFEZaren legealdaketa guztietan²⁰ (“familia” terminoari edonolako edukia, zabalera edo modalitatea egozten diogula ere), eta, beste alde batetik, zergaren indibidualizazioa, 1989an irmoki ezarri zena, indartzen joan dela PFEZaren aldaketetan; hau da, indartu egin da kargatutako ahalmen ekonomikoa (errenta) banakako jasotzailearen gainean soilik egin behar delako ideia, hau da, zergadunaren gainean (PFEZLko 8. artikulua), pertsona fisikoaren gainean.

Halere, PFEZaren legediaren baitan hasiera batean berdintasuna ukatzen duten erakundeak daude enkistatuta. Izan ere, zergapetutako errenta kargatzerakoan, aipatutako PFEZLren 1. artikuluari jarraiki, indibiduoaren errentaz gainera, horren ezkontidearena ere kontuan hartu behar dela araututa dago, bai eta pertsona horren menpe dauden beste pertsona batzuen ere, bai arrazoi familiarrak direla eta, edo menpekotasun ekonomikoagatik (nahiz eta, gehienetan, bi egora horiek, bizikidetzeta eta menpekotasun ekonomikoa, batera gertatzen diren).

PFEZaren hainbat alderdiri buruz ari gara. Alde batetik, **“zerga-ordainketa bateratuta” delakoari** buruz, hori baita garrantzi handiena duena, pertsona-kopuru handienari eragiten diolako, eta diru-kantitate gehiena biltzen duena delako (2004ko zerga-aldian, 2005eko aitortzean, 4.973.795 aitortzean, hau da, ekitaldi horretako aitortze guztien %30,2). Baina beste alderdi batzuei buruz ere ari gara: seme-alabengatik kenkariak ekonomia- eta ezkontza-erregimen jakin batzuetan, enpresa-jarduerara egindako ondasunen ekarpena kontuan hartzea, familia-unitateko kideen artean ordainketak kendu ahal izatea²¹, ezkontideen zerga-likidazioan diru-sarrerak etetea, etab. Horiek

²⁰ Eta oraindik itxi gabe dago, “ume-txekeari”, 2007/35 Legeari, buruzko eztabaidak erakutsi duen bezala.

²¹ *Vid.* Gorospe Oviedo, Juan Ignacio. “2004/255 KAE, abenduaren 22koa. Familia-unitateko kideen artean ordainketak kendu ahal izatea PFEZEN, eta kenkari aldakorra aplikatzea. 1978/44 Legearen zenbait

guztiek honako egora hau dute oinarri: lan egiten ez duen, eta, ondorioz, "familia-unitateari" errenta monetariorik ekartzen ez dion emakumezko bat egotea; edo, errentak baldin badauzka, horiek noizbehinkakoak eta marjinalak izaten dira "familia-unitate" horretako zergadun nagusiarekin konparatuz gero, hau da, familiako aitarekin, senarrarekin. Beste alde batetik, aipa ditzakegu doako harreman ekonomikoak eta ondasunen edo lanaren "lagapenak" ezkontideen eta seme-alaben eta gurasoen artean.

Hala eta guztiz ere, testu honetan zerga-ordainketa bateratuari buruz hitz egingo dugu.

PFEZen zerga-ordainketa bateratua egotearen helburua da, bai historikoki eta bai legeari dagokionez, "familia-unitateen" gaineko fiskalitatea hobetzea zerga-karga murriztuz; normalean, familia-unitate horietan, kideetako batek, gehienetan, emakumezkoak, ez du errentarik jasotzen, edo diru-sarreraren iturri nagusiarekin konparatuz gero, hau da, senarrarekin, oso neurri txikian jasotzen ditu. Egitura horretan ez da inolaz ere kontuan hartzen etxeko lana, eta emakumezkoa errenta-sortzaile periferikotzat hartzen da, edo lan-eskaintza mugatuak, iragankorrak eta aldi-baterakoak jaso ditzakeen subjektutzat²².

Zerga-ordainketa kolektiboko sistema xeble hori, gaur egun PFEZLko IX. Tituluan, 82.tik 84.era bitarteko artikuluetan (biak barne) arautzen dena, historikoki, sozialki eta juridikoki oinarritu da ezkontutako emakumezkoen errenten bigarren mailako izaera marjinallean, sistema hori mantendu ahal izateko zergadun bakarra pertsona fisiko isolatua den tasa batean (PFEZLko 8. artikulua).

Era beran, historikoki, zerga-ordainketa bateratua derrigorrezko zerga-ordainketa bateratu zaharraren hondarra da, eta, ondorioz, berdintasun-politikekiko kontraesan garbia da. Izan ere, lan-munduan sartzeko pizgarriak eta bakarka egotziko zaizkion errentak eskuratzeko pizgarriak murrizten ditu emakumezkoentzat, (PFEZLko 11. artikulua); horretarako berezko eskubidea dauka, lanaren errendimenduari dagokionez, (PFEZLko 11.2. artikulua)²³.

Beste ildo bati eutsiz, harrigarria da zerga-ordainketarako sistema hori mantendu izana. Izan ere, sistema horren egituratik bertatik adierazten da, sistema bera justifikatzeko, PFEZak babestu egin behar duela emakumezkoa; normalean, ezkontua, pertsona ahulagoa eta senarraren menpekoa diru-sarrerak sortzeari dagokionez. Babes hori emateko, zerga-egitura mailakatu batean, errendimendu "marjinalak" (ezkontutako emakumezkoarenak) "familia-unitateko" errenten tasa areagotzea ekidin nahi da. Arrazoiketa hori onartezina da erabat EBk, KEk (14. artikulua) eta Espainiako araudiak aldarrikatzen duten berdintasunezko gizartean, eta, era berean, emakumezkoa lan-merkatuan sartzeari zailtzen du, eta areagotu egiten du sistema honetan emakumezkoen lanak pairatzen duen bereizkeria eta patriarkatuak lan horri egozten dion "marjinal" izaera.

aginduren konstituzionaltasun-eza eta deuseztasuna, berdintasun-printzipioa hausten duelako Estatuko gastuak mantentzeko kontribuzioan (Keko 31.1. artikulua), Zerga Kronika, 123, 2007, 176.etik 183. orrira bitarte.

²² Gai horiek sakonago lantzeko, ikus: Pazos, María. "Generoa eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga. Berrikuntza-proposamena", zenbait egile, Pazos Morán, María (zuz.). Zerga Politika eta generoa, Arg. Azterketa Fiskalerako Institutua, bilduma.Ogasun Publikoaren Azterketak, Madril, 2005, 97. orrialdea eta hurrengoak.

²³ "Lanaren errendimenduak horiek jasotzeko eskubidea sorrarazi duenari soilik egotziko zaizkio..."

Are gehiago, sistema hori hautazkoa izateak, hau da, zerga-aldi bakoitzean hori aplikatzea "aukeratu" ahal izateak erakusten du legegileak mesedegarritzat jotzen duela, hau da, hori aplikatzen duten zergadunentzako pizgarritzat, eta, beraz, gure PFEZen zerga-ordainketa bateratua onura fiskal gisa tratatzen dela (inkonstituzionala izango bailitzateke, bestalde, banakakoaren gainetik geratuko litzatekeen zerga-ordainketa bateraturako mekanismo bat); ez du inola ere kontuan hartzen horrek duen eragina emakumezkoen berdintasunari dagokionez, emakumezkoak lan-munduan sartzeari dagokionez, produktibitateari dagokionez etab.

Azken batean, zerga-sistemen izaera inertzialaren beste adibide bat da hau: arrazoi handirik gabe, zerga-mekanismo edo -parametro zaharkituak mantentzen dituzte, desegokiak direnak, bai eta ilegalak ere (gure ustez kasu honetan gertatzen den bezala).

5. ONDORIOAK.

1) Zerga-sistemei ere eragiten die "genero-joerak", eta arazo horren berri ez jakiteak azaltzen du, neurri batean, zergatik marjinatu den beti zergen eta generoaren arteko erlazioa; halere, badira horretarako beste arrazoi batzuk ere, hala hola, inertziaren pisua, Zerga Politikaren helburu kontraesankorrak, familia-harremanen kontzepzio zaharrak mantendu nahi dituzten talde sozialen presioa, etab.

2) Arrazoi legalak, ekonomikoak eta sozialak daude gaur egun Espainiako zerga-sistema osatzen duten tasa guztiak berrikusteko beharra eragiten dutenak, horiek Europako genero-berdintasunaren politiketara eta Espainiako "berdintasunari" buruzko arauetara egokitzen ote diren aztertzeko.

3) Alabaina, "zerga-ordainketa bateratua" mantentzean, PFEZaren berrikuntzak agerian utzi duen bezala, "genero-berdintasuna" ez da gobernuaren lehentasunetako bat; horren itxurazko berdintasun-politika propaganda politikorako tresna xume bat da soilik.

4) Zerga-sistema aztertzen jarraitu behar da, genero-berdintasunari eragiten dioten faktoreak aurkitzen jarraitzeko; izan ere, gai hori oso gutxi aztertu da orain arte Espainian.